EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

| Ordena z. Nº orden |
|---|
| |

# HEZIKETA ZIKLOETARA SARTZEKO PROBA
# *PRUEBA DE ACCESO A CICLOS FORMATIVOS*

## **Goi Mailako Zikloak** / *Ciclos de Grado Superior*

**Atal espezifikoa** / *Parte específica*

# A

# Enpresa-Ekonomia /
# *Economía de la empresa*

| **NAN** / *DNI* | | **Izena** /*Nombre* | |
|---|---|---|---|
| **Abizenak** / *Apellidos* | | | |
| **Sinadura** / *Firma* | | | |

**2020ko maiatza** / *mayo de 2020*

**1go galdera / 1ª pregunta (2 p)**

**Una empresa que se dedica a la comercialización de cajas realiza las siguientes operaciones durante el mes de junio:**

- 01/06 Existencias iniciales: 2.000 unidades a 4 €/u.
- 06/06 Compras al proveedor X: 2.000 unidades a 5€/u.
- 08/06 Compras al proveedor Y: 4.000 unidades a 5,5 €/u.
- 11/06 Ventas al cliente A: 3.000 unidades a 6 €/u.
- 17/06 Compras al proveedor Z: 5.000 unidades a 5,8 €/u.
- 24/06 Ventas al cliente A: 6.000 unidades a 7 €/u.

Con los datos anteriores, calcule la ficha de almacén del mes de mayo mediante los métodos FIFO y PMP y calcule las existencias finales y el valor de las mismas.

**Enpresa batek kutxak saltzen ditu, eta mugimendu hauek erregistratu ditu ekainean biltegian:**

- 06/01.- Hasierako izakinak: 2.000 unitate 4 €/u-an.
- 06/06.- Erosketak X hornitzaileari: 2.000 unitate 5 €/u-an.
- 06/08.- Erosketak Y hornitzaileari: 4.000 unitate 5,5 €/u-an.
- 06/11.- Salmentak A bezeroari: 3.000 unitate 6 €/u-an.
- 06/17.- Erosketak Z hornitzaileari: 5.000 unitate 5,8 €/u-an.
- 06/24.- Salmentak A bezeroari: 6.000 unitate 7 €/u-an.

Aurreko datuak aintzat harturik, bete ezazu maiatzeko biltegi-fitxa FIFO eta batez besteko prezio haztatuaren (BPH) balorazio-metodoak erabiliz, eta kalkula itzazu bukaerako izakinak eta izakin horien balioa.

**2. Galdera / 2ª pregunta (2p)**

**La empresa "BEZAIN S.A.", posee el siguiente patrimonio del ejercicio económico:**

- Maquinaria……………………………………………………………..60.000€
- Mobiliario diverso……………………………………………………130.000€
- Saldo a favor en la cuenta corriente del banco…………………………..18.000€
- Préstamo obtenido en el banco a devolver en 4 años………………...170.000€
- Equipos informáticos…………………………………………………...9.000€
- Furgoneta para el reparto………………………………………………85.000€
- Amortización acumulada del inmovilizado material……………………..52.000€
- Proveedores del Inmovilizado a L/P……………………………………17.000€
- Facturas pendientes de cobro…………………………………………35.000€
- Facturas pendientes de pago…………………………………………..27.000€
- En el almacén tiene géneros por………………………………………53.000€
- Debe a la Seguridad Social………………………………………………4.000€
- Letras aceptadas por clientes…………………………………………..48.000€
- Dinero efectivo en caja……………………………………………………8.000€
- Letras aceptadas a los proveedores……………………………………...33.000€
- Debe a Hacienda por la liquidación del IVA………………………………5.000€
- Reserva legal…………………………………………………………….22.000€
- Capital social…………………………………………………………………el resto

Se pide:

a) Realice el balance de la empresa clasificado en masas patrimoniales.
b) Calcule el fondo de rotación o fondo de maniobra e interprete el resultado.
c) Analice la situación financiera de esta empresa utilizando los siguientes ratios:
    a. Tesorería
    b. Liquidez
    c. Garantía
    d. Inmovilizado
    e. Endeudamiento

**BEZAIN S.A. enpresak ekitaldi honen bukaeran ondare hau du:**

- Makineria……………………………………………………………60.000€
- Altzari batzuk…………………………………………………………130.000€
- Enpresaren aldeko saldoa bankuan duen kontu korrontean…………..18.000€
- 4 urte barru itzultzeko mailegua…………………………………………170.000€
- Informatika-ekipoak……………………………………………………….9.000€
- Banaketarako furgoneta…………………………………………………...85.000€
- Ibilgetu materialaren amortizazio metatua……………………………….52.000€
- Epe luzean ordaintzeko ibilgetu-hornitzaileak…………………………...17.000€
- Hainbat faktura kobratzeko………………………………………………..35.000€
- Ordaindu gabe dituen fakturak…………………………………………….27.000€
- Biltegian dituen salgaiak…………………………………………………...53.000€
- Gizarte Segurantzari zor zaiona……………………………………………4.000€
- Bezeroek onartutako truke-letrak………………………………………….48.000€
- Eskudirua kutxan…………………………………………………………….8.000€
- Hornitzaileei onartutako letrak…………………………………………….33.000€
- BEZaren likidazioagatik Ogasunari zor diona……………………………..5.000€
- Legezko erreserba………………………………………………………….22.000€
- Kapital soziala……………………………………………………geratzen dena

Hau eskatzen da:

a) Enpresaren balantzea ondare-masetan sailkatuta aurkeztea.
b) Errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa kalkulatzea eta emaitza aztertzea.
c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
   a. Ibilgetua
   b. Zorpetze osoa
   c. Diruzaintza edo altxortegia
   d. Likidezia
   e. Bermea

**3. Galdera / 3ª pregunta (2 p)**

**La editorial Luces y Sombras ha producido durante el mes de mayo 32.000 revistas deportivas por un precio de 3,25 €. La producción y venta de esta cantidad ha supuesto, además de unos costes fijos de 30.000 €, unos costes unitarios variables de 1,25 €. Teniendo en cuenta todos los datos anteriores:**

a) Calcular el umbral o punto de rentabilidad de este proceso productivo y explicar su significado

b) ¿Cuál sería el resultado de la venta de estas 32.000 revistas?

**Argi-iluna editorialak, maiatzean zehar, 32.000 kirol aldizkari ekoitzi ditu, 3,25 €-ko prezioan. Kopuru hori ekoitzi eta saltzeak, 30.000 €-ko kostu finkoak izateaz gain, 1,25 €ko unitateko kostu aldakorrak ekarri dizkio ere. Aurreko datu horiek guztiak kontuan hartuz, egin honako hau:**

a) Kalkulatu ekoizpen prozesu honen errentagarritasun-ataria edo lokagunea, eta azaldu bere esanahia

b) Zein izango litzateke 32.000 aldizkari horiek saltzearen emaitza?

**4. Galdera / 4ª pregunta (2 p)**

**Preguntas de opción múltiple.**

| | |
|---|---|
| 1.-La fijación de precios basada en costes:<br>a) Implica necesariamente fijar un precio similar al de la competencia.<br>b) Consiste en añadir al coste del producto un determinado margen de beneficio.<br>c) Los costes nunca deben ser tenidos en cuenta para fijar precios. | 6.-La parte del activo no corriente que es financiada por el patrimonio neto y el pasivo no corriente, se denomina:<br>a) Neto.<br>b) Fondo de maniobra.<br>c) Umbral de rentabilidad. |
| 2.-El análisis DAFO es un método:<br>a) Que analiza interna y externamente a la empresa.<br>b) Que analiza internamente a la empresa.<br>c) Que analiza externamente a la empresa. | 7.-Un cártel de dos o más empresas:<br>a) Se forma cuando una empresa compra acciones de los demás con el propósito de tomar su control.<br>b) Es un acuerdo entre empresas de diferentes sectores para controlar el mercado.<br>c) Está formado por empresas que pertenecen al mismo sector y tratan de regular la competencia en el mercado. |
| 3.-Los proveedores de una empresa forman parte del:<br>a) Entorno general.<br>b) Entorno económico.<br>c) Entorno específico. | 8.-La capacidad que tiene la empresa para convertir sus inversiones en medios de pago totalmente líquidos, se denomina:<br>a) Solvencia.<br>b) Liquidez.<br>c) Rentabilidad. |
| 4.-El traslado de actividades productivas desde países industrializados a países en vías de desarrollo, se denomina:<br>a) Deslocalización.<br>b) Globalización.<br>c) Internacionalización. | 9.-El incremento o disminución de la productividad global de una empresa de un período con respecto a otro posterior, expresado en porcentaje, se denomina:<br>a) VAN (Valor Actualizad Neto)<br>b) Marketing-Mix.<br>c) TVPG (Tasa de Variación de la Productividad Global). |
| 5.-El crédito comercial de proveedores de mercaderías en una fuente de financiación:<br>a) Ajena y a corto plazo<br>b) Ajena y a largo plazo<br>c) Propia y a corto plazo | 10.-la estructura basad en el principio de unidad de mando, se denomina:<br>a) Estructura en STAFF.<br>b) Estructura lineal o jerárquica<br>c) Estructura matricial |

**Aukera anitzekoa galderak:**

| | |
|---|---|
| 1.- Kostuetan oinarritutako prezioak finkatzea:<br>a) Nahitaez ezarri behar da prezioa. lehiakideen antzekoa<br>b) Produktuaren kostuari irabazi-marjina jakin bat gehitzea.<br>c) Kostuak ez dira inoiz kontuan hartu behar prezioak finkatzeko. | 6.- Nola deitzen zaio ondare garbiak eta pasibo ez-korronteak finantzatzen duten aktibo ez-korrontearen zatiari?<br>a) Garbia.<br>b) Maniobra-fondoa.<br>c) Errentagarritasun-atalasea |
| 2.- AMIA analisia metodo bat da:<br>a) Enpresa barrutik eta kanpotik aztertzen duela.<br>b) Enpresa barrutik aztertzen duela.<br>c) Enpresa kanpotik aztertzen duela. | 7.- Bi enpresa edo gehiagoko kartel bat:<br>a) Enpresa batek besteen ekintzak erosten dituenean sortzen da, kontrola hartzeko.<br>b) Hainbat sektoretako enpresen arteko akordioa da, merkatua kontrolatzeko.<br>c) Sektore bereko enpresek osatzen dute, eta merkatuko lehia arautzen saiatzen dira. |
| 3.- Enpresa baten hornitzaileak dira:<br>a) Ingurune orokorra.<br>b) Ingurune ekonomikoa.<br>c) Ingurune espezifikoa. | 8.- Nola deitzen zaio enpresak inbertsioak ordainbide erabat likido bihurtzeko duen gaitasunari?<br>a) Kaudimena.<br>b) Likidezia.<br>c) Errentagarritasuna. |
| 4.- Nola deitzen zaio herrialde industrializatuetatik garapen-bidean dauden herrialdeetara ekoizpen-jarduerak eramateari?<br>a) Deslokalizazioa.<br>b) Globalizazioa.<br>c) Nazioartekotzea. | 9.- Nola deitzen zaio enpresa baten produktibitate globalaren hazkundeari edo murrizketari, aldi bat geroagoko beste batekin alderatuta, ehunekotan adierazia?<br>a) Balio eguneratu garbia<br>b) Marketing-Mix.<br>c) KPI (Produktibitate globalaren aldaketa-tasa). |
| 5.- Salgai-hornitzaileen merkataritza-kreditua finantziazio-iturri bat da:<br>a) Kanpokoa eta epe laburrekoa.<br>b) Kanpokoa eta epe luzekoa.<br>c) norberarena eta epe laburrekoa. | 10.- Nola deitzen zaio aginte-unitatearen printzipioan oinarritutako egiturari?<br>a) Staff-en egitura.<br>b) Egitura lineala edo hierarkikoa.<br>c) Matrize-egitura. |

**5. Galdera / 5ª pregunta (2 p)**

**Salvar pequeñas empresas**

La crisis financiera que ha provocado la crisis industrial ha traído consigo víctimas de diversos tipos y niveles. No todas las víctimas son iguales ni consecuencias sociales. Grandes empresas, medianas y pequeñas están sufriendo. Por un lado, porque el consumo ha disminuido y, por lo tanto, las empresas han reducido su **producción**. Por otro lado, los bancos no liberan dinero, por lo que es posible que se paralice el día a día de las empresas. Tanto unas como otras empresas deben tomar medidas para solucionar esta situación, sabiendo que muchas veces esta situación es provisional. Una de las primeras medidas es regular la producción para reducir **costes**. Esto significa que se regulará el **trabajo** aunque sea temporal.

No todas las empresas tienen las mismas oportunidades para afrontar la crisis. Las grandes y medianas empresas han tenido buenos años y han acumulado grandes beneficios. Pueden reducir la producción sin reducir los puestos de trabajo ni siquiera temporalmente. Las pequeñas empresas tienen menos reservas, la crisis coyuntural puede convertirse en estructural y puede hundirse. Los trabajadores de **la gran y mediana empresa** y los sindicatos ejercen una fuerte presión social y obtienen de la mano del dinero público ayudas y expedientes de regulación. Los trabajadores de las pequeñas empresas no consiguen esta presión. Por ello, los poderes públicos y las entidades financieras, especialmente las cajas de ahorros, deberían cuidar mejor a las pequeñas empresas y ofrecer soluciones provisionales para evitar su muerte.

Preguntas:

a) Explique el significado de las palabras en negrita del texto.

b) ¿Qué se propone en el escrito para evitar la muerte de pequeñas empresas?

## Enpresa txikiak salbatu

Krisi industriala eragin duen finantza krisiak hainbat mota eta mailako biktimak ditu. Biktima guztiak ez dira berdinak eta ondorio sozialak ere ez. Enpresa handiak, ertainak eta txikiak ari dira sufritzen. Batetik, kontsumoak behera egin duelako, eta ondorioz, **ekoizpena** murriztu dute enpresok. Bestetik, bankuek ez dute dirurik askatzen eta litekeena da horregatik enpresen eguneroko jarduna gelditzea. Enpresa batzuek zein besteek neurriak hartu behar dituzte egoera konpontzeko, jakinda askotan egoera hori behin behinekoa dela. Lehenengo neurrietakoa da **kostuak** murrizteko ekoizpena erregulatzea. Horrek esan nahi du **lana** erregulatuko dela, nahiz eta aldi baterako izan.

Enpresa guztiek ez dauzkate aukera berak krisiari aurre egiteko. Enpresa handi eta ertainek urte onak izan dituzte eta etekin handiak pilatu dituzte. Ekoizpena murriztu dezakete lanpostuak gutxitu gabe, ezta aldi baterako ere. Enpresa txikiek erreserba gutxiago dute, krisi koiunturala estruktural bihur daiteke, eta horrek hondoratu egin ditzake. **Enpresa handi eta ertaineko** langileek eta sindikatuek presio sozial handia egiten dute eta diru publikoaren eskutik laguntzak eta baita erregulazio espedienteak ere lortzen dituzte. Enpresa txikietako langileek ez dute horrelako presioa eragiterik lortzen. Horregatik, botere publikoek eta finantza erakundeek, batik bat aurrezki kutxek, enpresa txikiak hobeto zaindu beharko lituzkete eta behin behineko konponbideak eman, hil ez daitezen.

Galderak:

a) Azaldu itzazu letra lodiz nabarmendutako terminoak.

b) Idatzian zer proposatzen da enpresa txikiak hil ez daitezen?